

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Hutsen zuzenketa, honako iragarki honena: 2020-1948 iragarkia, ALHAOn, 83. zenbakian, uztailaren 24an argitaratua, Salburua eta Zabalgana urbanizatzeko programako ekipamendu eta etxebizitzarako planeko lehen xedapen-aldaketaren proiektua onetsi, eta xedapen-aldaketa horri hasierako onespina emateari buruzkoa

Hutsak atzeman direnez iragarkian, hutsen zuzenketa hau argitaratzen da:

Hau erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko uztailaren 24an egindako ohiko bilkuran:

1. Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 10eko erabakian, honela dioen lekuan: Salburuko eta Zabalganeko hirigintza-jarduketaren programako ekipamendu- eta etxebizitza-planaren lehen aldaketa puntualaren proiektua onestea, eta aldaketa puntual horri hasierako onespina ematea.

Honela behar du: Salburuko eta Zabalganeko ekipamendu- eta etxebizitza-planeko eremuetako hirigintza-jarduketaren programaren lehen aldaketa onestea.

2. Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 10eko erabakian, honela dioen lekuan: Gasteizko Salburuko eta Zabalganeko plan partzialaren lehen aldaketa puntualaren proiektua —udal zerbitzu teknikoek 2020ko otsailaren 3an idatzia— onestea.

Honela behar du: Salburuko eta Zabalganeko ekipamendu- eta etxebizitza-planeko eremuetako hirigintza-jarduketaren programaren lehen aldaketaren proiektua —ITAU enpresak 21 Zabalgunearen enkarguz idatzia, eta dossierrean jasota dagoena— onestea.

3. Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko uztailaren 10eko erabakian, honela dioen lekuan: Hasierako onespina ematea Gasteizko Salburuko eta Zabalganeko plan partzialaren lehen aldaketa puntualari, ITAU, Arquitectura, Ingeniería y Urbanismo SLP enpresak 2020ko urtarrilean egindako proiektuaren arabera —dossierrean jasota dago—.

Honela behar du: Hasierako onespina ematea Salburuko eta Zabalganeko ekipamendu- eta etxebizitza-planeko eremuetako hirigintza-jarduketaren programaren lehen aldaketari —ITAU enpresak 21 Zabalgunearen enkarguz idatzia, eta dossierrean jasota dagoena—.

...

5. Salburuko eta Zabalganeko hirigintza-jarduketaren programaren lehen aldaketaren proiektuaren onespina eta lehen aldaketaren hasierako onespina argitaratzea, zuzenduta, eta hogeiei eguneko jendaurreko informazio-aldia zabaltzea.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Herritarrei Laguntzeko Zerbitzuan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - beheko solairua— egongo da ikusgai dosierra, adierazitako epean.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko uztailaren 29an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE